

A2.1 MAILA

BALDINTZA ERREALA.

Irakurri beheko esaldiak eta azalpenak, eta ondoren, esaldi hauek osatu.

Baldintza erreal: -T(z)en(Baldin) Ba Ondorioa	Adibideak
<p>Baldintza osatzeko, BA- ebo BALDIN BA- jartzen dugu aditz laguntzailearen aurretik(aditz konposatuetan) eta aditz nagusiak- T(Z)EN hartzen du.</p> <p>Ondorioan:</p> <p>Ohiturazkoa. Ekintza maiztasun batekin(normalean, beti, egunero...) errepikatzen dela adierazten du.</p> <p>- Aditza geroaldian. Etorkizunean zer gertatuko den iragartzeko erabiltzen dugu.</p>	<ul style="list-style-type: none">- Nik urte osoan, posible BALDIN BAdut, sandaliak erabilTZEN ditut.- Hotz handia egiten BAdu, botak edo zapatak janzTEN ditut.- Hondartzara joaten BAnaiz, askotan txankletak janzTEN ditut.- Sandaliak janzten BAdituzu, oinak freskoago ibiliKO dituzu.- Zapatila onak erosten BAditut, erosoago sentituKO naiz.

A2.1 MAILA

OSATU ESALDIAK.

1. Bihar eguraldi hobea _____, txankleta berriak jantziko ditugu.
 2. Neguan mendira joaten bagara, bota onak eta sendoak _____.
 3. Koadrilakoak Pirineoetara _____, Gabarditoko aterpetxean bazkaltzen dugu.
 4. Hemendik aurrera txankleta egokiak _____, bizkarra zuzenago _____.
 5. Korrika egiteko zapatila hauek _____, oso eroso ibiltzen naiz.
 6. Hondartzara joaten naizenean oinutsik _____, gauean, oso nekatuta _____.
 7. Kontuz ibili ! Orain oinetako horiek _____, gero hankako minez ibiliko zara.
-

A2.1 MAILA

IDAZMENAREN LANKETA

EGITEKOA: Deskribatu zure gustoko oinetakoak.

Eta zuk zure armairuko zein oinetako dituzu gustukoen? Deskribatu idatziz oinetako horiek. Erabili ereduan azpimarratuta dauden egiturak. **OHARRA:** Aukera baduzu, eraman zure gustuko oinetako argazkia klasera eta irakurri zure deskribapena taldekoen aurrean. Denon argazkiak nahastu ondoren, ea besteek asmatzen duten zein oinetakoei buruz ari zaren.

GIDOI- PROPOSAMENA:

- Nolakoak dira?
- Noiz erosi zenituen?
- Zertarako dira/ ez dira aproposak? (kirola egiteko, mendian asko ibiltzeko...)
- Zergatik gustatzen zaizkizu?

NIRE OINETAKO GUSTUKOENAK

Niretzak oinetako gustukoena bota marroi hauek dira. Oinetako hauek larruzkoak dira, eta oso sendoak, baina erosoak dira. Duela bi urte erosi nituen Huescako kirol- denda batean. Niri asko gustatzen zaizkit oinetako hauek, mendian ibiltzeko aproposak direlako. Baina ez dira oso egokiak kalean ibiltzeko, pisutsuak dira eta.

Eguraldi oso hotza egiten badu, eta Pirineoetara joaten bagara, beti bota hauek janzen ditut... asko babesten dute, eta oinak lehor- lehor ibiltzen ditut.

